



## ETXETIK HEZKUNTZA PROZESUAREKIN JARRAITZEKO SENIDEENTZAKO AHOLKUAK

1. Lo egiteko, jateko, lanerako, aisialdirako eta kirolerako orduak erregulatzea, oso garrantzitsua da **bizitza ordenatu bat** eraman dezaten. **Horregatik, jarduerak aldatzea eta dosifikatzea** komenigarria da. Horretarako, eguneroko jarduna planifikatzeko bi zatitan banatu: goiza eta arratsaldea, eta erdian atsedenaldiak tartekatatu.



2. Egun hauetan, zuen seme-alabek denbora bat zehaztu beharko dute egunero irakasleek bidaltzen dizkieten etxerako lanak eta jarduerak egiteko. **Eguneroko ikaskuntza-jarduera aurrera eramateko aholkuak:**

Egunero lan egiteko **leku finko** bat aukeratzea; denbora planifikatzea; zereginen zerrenda bat egunero egitea; behar den guztia batzea eta **antolatzea**; lan-erritmoari eustea; zalantzak galdetzea irakasleei ohiko ordutegian. Halaber, ikaskideek, senideek eta Bidelaguneko begiraleek ere eska dezakete laguntza

3. Zuen seme-alabek egindako lanak irakasleek **ebaluatuko** dituztela gogoratu behar duzue.



4. **Aisialdia:** jolasteko, pelikulak, musika, bideoak entzun eta ikusteko... **Irakurketaz gozatzeko aukera** ezin hobea izango dute eta baita **sormena bultzatzeko** ere (marrazkiak, komikiak, esku-lanak, sukaldaritza...)



5. Internetak eskaintzen dizkigun baliabideak erabili (museo bisita birtualak, dokumentalak...), baina **gailu elektronikoaren erabilera mugatua izan behar da**, zuen seme-alabek eskolako lanak egiteko eta lagunekin komunikatzeko denbora luzea pantailen aurrean ematen dutela aintzat hartuta.

6. **Etxeko lanetan lagundu, zuen burua eta inguruko pertsonak zaindu.**

7. Familiakoaren artean mahai-jokoetara **jolasteko** (tribial, kartak, damak, "Monopoly" ... ) eta **solasaldiak** izateko aprobetxatu.



8. Zuen etxebizitzak eskaintzen daizkizuen aukeren arabera, bilatu modu ezberdinak **bakarka edo familian, ariketa fisikoa** egiteko.

9. Seme-alabekin **komunikatzeko**, entzun arretaz haiek eskatzen dizuetena eta ondoren, elkarrizketen edota **negoziazioen** bidez arazoak konpondu.

